

AZALPEN TESTUA

1.ARIKETA: ordena itzazu azalpen testuaren atalak arrastaka eramanez.

1	AURKEZPENA
2	ONDORIOA
3	GORPUTZA
4	IZENBURUA

2.ARIKETA: Okapiari buruzko testu hau, desordenatuta dago. Ipini paragrafo bakoitza zein atal den.



Duela gutxi arte, okapia ezezaguna izan da guretzat. Esploratzaileek XIX. mendearen bukaeran izan zuten lehenengoz haren berri. Gaur egun ere, okapia ikustea zaila da. Baso itxian bizi da, eta, gainera, gauez mugitzen da askotan. Horregatik, okapia ikertzeko, askotan, gorotzak bilatuta egiten da.

Bada, zaila da galdera horri erantzutea. Gaur egun ere, okapia ikustea zaila delako, baina testu honetan okapiari buruz gehiago jakiten saiatuko gara.

Kongoko bihotzean animalia harrigarriak bizi dira, horietako bat da. Okapia Jirafaren familiakoa da .Askotan aipatu da okapiak jirafa eta zebraren arteko nahaste bat dirudiela. Antilope marroi bat dirudi, baina ipurdian marrak ditu, zebrek gorputz osoan bezala.

Kongoko egoera ez da erraza izan azken hamarkadetan. Gatazka armatuak izan dira eta ez da erraza izan okapiaren segimendua egitea. Laburbilduz, okapiaren egoerari buruz daukagun informazioa oso urria da.

ZER EGOERATAN DAGO OKAPIA GAUR EGUN?